



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2007-12-12**

VURTEA 1.311.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Irakurzaletasuna euskaraz bultzatzeko proiektua abian Tolosan

HEZKUNTZA 'Bularretik mintzora' liburu-diskoaren aurkezpena egin zuen atzo Galtzagorri elkarteak

PROIEKTU PILOTOA Ikastetxeetan jarriko dute martxan; haur txikien gurasoei eta hezitzaileei dago zuzendua 5



Jokin Bildarratz eta Itziar Zubizarreta proiektu berriaren aurkezpenean, atzo. NEREA URBIZU

Lizartzako Udalak izena aldatu dio Txirrita gudariaren plaza zenari

POLITIKA Regina Otaolak eman zuen jakitera Askatasunaren plaza izena jarri diotela 6

Lanuzteak egingo dituzte bihar «Euskal Herriaren aurkako erasoak salatze»

POLITIKA LAB, EHNE, ASK eta Hiru sindikatuek eta ezker abertzaleak deitu dituzte 2

**Jatorkin
elkartek
jardunaldiak
antolatu ditu
gaur hasi eta
larunbatera arte**

TOLOSA 'Euskal Herriko herritar berriak' lelopean ekitaldi ugari izango dira 3

**Etiopiara bidaia
egiteko aukera
izango da gaur,
udaletzeko zine
aretoan, Mendi
Astearen baitan**

ASTEASU Iñaki Caperochipik emango du 20:00etan ikus-entzunezkoa 4

**Aurrerako
pilotariak
bikain aritu dira
asteburuan
jokatu dituzten
finaletan**

LEITZA Anartz Olano, Mikel Sagastibeltza eta Jaunarena izan dira txapeldunak 7

3. Urteurrena.
Bihar, abenduak 13 osteguna,
zatoz eta jaso ezazu opari bat

HONEKIN?

Opari: emozioak, sentsazioak,
edertasuna, Zerbaitu oso bat, kolore,
tratamendu eta mozketak. **Dena 60 euro.**
HONEKIN EDERTASUN TXARTELA
OPARITUI

Gabonetako ordutegi bereziak:
abenduak 24 eta 31an,
goizeko 08:30etatik 13:00etara.

943 67 22 44
ZORIONAK ETA
EGUBERRI ON!
Santa Maria plaza, 1 • TOLOSA



Ezker abertzaleko kideek mobilizaziorako deia egin zuten herenegun burututako agerraldian. E. EZEIZA

«Euskal Herriaren aurkako azken erasoak» salatzeak lanuzteak egingo dira bihar

Politika » LAB, EHNE, ASK eta Hiru sindikatuak nahiz ezker abertzaleak egin dute 12:00etan lanuzteak egiteko mezua.

ESTI EZEIZA

«18/98 auziari eta Euskal Herriaren aurkako eraso orokorrari behar bezala erantzuteko» LAB, EHNE, ASK eta Hiru sindikatuak bat eginez, lanuzte eta mobilizazioetara deitu dituzte biharko. 12:00etatik 13:00etara egingo dituzte lan uzteak eta elkarretaratzeak.

Bestelako ekimenetara ere deitu dituzte eskualdean. Villabonan manifestaziora deitu dute 12:00etan plazatik abiatuta. Asteasun elkarretaratzea egingo dute plazan, 19:30ean. Zizurkil 20:00etan manifestazioa abiatuko da Joxe Arregi plazatik. Tolosan, Udaletxe aurrean egingo dute 12:00etan elkarretaratzea. Arratsaldean berriz, 20:00etan, manifestazioa egingo dute Triangulotik abiatuta. Bestalde, dei berezia egiten diete ezker abertzalekoek Tolosaldeko dendari eta ostalariei, mobilizazioekin bat egiteko. Amezketan elkarretaratzea egingo dute 20:00etan, herriko plazan. 18/98 auziaren baitan 55 auzipe-

tu daude, 46 atxilotze agindu eta 500dik gora espetxe urte. Mikel Egibar zizurkildarra eta Joxe Mari Olarra billabonatarra atxilotuak izan dira. Nekane Txapartegi asteasuarraren aurkako atxilotze agindua eman dute, baina ez dago oraindik atxilotuta. Honenbestez, ezker abertzaleko kideek salatu dute, «18/98ko auziak herri honen eskubideen ukazioan sakondu eta Euskal Herriaren eraikitzearen alde lanean ari diren herritar eta kolektiboak kriminalizatzeko oinarri berriak ezarri dituela». Herenegun egindako agerraldian gaineratu zuten, «18/98 auzia ez da urrats isolatua, urte luzez Euskal Herriaren independentzia bultzatzen duen mugimendu politikoa-ren aurkako jazarpenaren segida baizik». Hala, beraien iritziz, «Euskal Herriaren eskubide zibil eta politikoen aurkako eraso estrukturala dago horren oinarrian».

«Euskal Herria osoaren aurka» Makrosumarioko epaiketak hasi zirenean LAB sindikatuak argi esan zuen, «epaiketak Euskal Herria osoaren kontrakoak zela. Auzipe-tuen eserleketan Euskal Herria zegoen ordezkakuta, Euskal Herriaren borroka epaitu nahi zuen Espainiak eta hori da zigortu dute-na. Euskal Herriaren aurkako in-dependendtzia-aren aldeko eraman

dituztelarik beste behin ere».

Ezker abertzaleak «Eusko Al-derdi Jeltzalearen jarrera» ere gaitzetsi du, izan ere «18/98ko auzia, epaiketak eta zigorrak ez zen posible izango Espainiak EAJ alderdiaren laguntza izan ez balu, eta egun jeltzaleen laguntza ezinbestekoa zaio PSOeri herri honi iruzur berria ezartzeko». Orain 30 urte gertatu zen bezala, EAJ-PNV, «Euskal Herria Espainiako zati izan dadin lanean» ari dela uste du ezker abertzaleak. Hala, «herri honi ezarri nahi dioten iruzurra gainditzeko, Euskal Herriak konponbide demokratikoa behar» duela aldarrikatu zuten herenegun egindako agerraldian. Eta gaineratu, «horretarako, konponbideari ateak irekitzerak».

«Erantzuna emateko garaia»

«Une erabakior honetan, hau da, aldaketa politikoa ataria izan daitekeen honetan», 18/98 epaia zen «Euskal Herriaren aurkako eraso orokorrari behar bezalako erantzuna emateko garaia» dela deritzo ezker abertzaleak. Beste-tik, «erasoen aurrean erantzun eta Euskal Herriaren eskubideen alde lan egiten jarraituko» dutela garbi utzi nahi izan zuten hereneguneko agerraldian. Honenbestez, dei hori bera euskal herritar orori luzatzen diete.

Euskara ikasteko erraztasun ugari eskaintzen ditu AEKk



AEKko ikasleek Villabonako Labezain okindegira egindako txangoa. HITZA

Euskara » 90 ikasle ditu aurtan Andoain eta Tolosaldeko AEKk; eskolak hasita badaude ere, izena eman daiteke

ERREDAKZIOA

Dagoeneko bi hilabete pasa dira Andoain eta Tolosaldeko AEKk euskara eskolak hasi zirenetik. Aurtan ere hainbat herritarrek euskalduntzeko eta alfabetatzeko konpromisoa berretsi dute. Andoaingo AEK euskaltegia 90 ikasle hasi dira. Ikasle hauek 60 bost taldetan banatuta daude. Talde hauek maila desberdinak dituzte, baina guztiak euskaraz jarduteko eskolak.

Horrez gain, 30 ikasle autoikaskuntzaren bidez ari dira euskara ikasten. Metodo honetan, 30 ikasle hauek tutorea izango dute euren bidelagun eta egunero etorri ezin dutenentzako eta talderik gabe gertatu direnentzako aukera ona da hau.

Bestalde, AEK, inguruko beste herri batzuetara ere iritsi da, zehazki Zizurkil, Amasa-Villabona eta Irurara. Herri hauek ere euskara eskolak ematen dituzte goizean eta eguerdian.

Zizurkil eta Amasa-Villabonan guztira 23 ikasle ari dira euskalduntzen. Zizurkil bi talde dauka, bata goizean Kultur Etxean

egoten da, eta bestea eguerdian Pedro Mari Otaño herri ikastetxean. Amasa-Villabonan berriz, goizean ematen dira eskolak; hemen ere, Kultur Etxean. Irurara, talde bakarra dago eta ikasle hauek eguerdian joaten dira eskolak jasotzera.

Ikasturtea hasi berria badago ere, ikasturte osoan zehar hainbat ekintza burutuko dituzte ikasle eta irakasleek. Talde desberdinetako jendea elkar ezagutzeko saioak burutuko dira; txangoak, jokoak etabar... Hau helburu bakarrekin, euskara ikastea, ondo pasaz.

Saio horietako bat azaroaren 14an egin zuten. Amasa-Villabonako ikasleak Labezain okindegira joan ziren bertan egiten dituzten ogi motak ezagutu eta ogia nola egiten duten ikustera. Bertako ikasleek adi-adi jarraitu zituzten okinarekin azalpenak.

Bestalde, ikasturtean zehar hainbat ekintza burutuko dituzte. Laster, Santo Tomas Eguna ospatuko denez, Tolosaldeko AEKk hainbat ekintza egingo ditu jaialdiaren harira. Andoaingo AEK euskaltegi iluntzeko hiru taldeek, esaterako, hilaren 19an txistorra prestatu eta bertan jaiak ospatuko dute txistorra, sagardoa eta ardoak janez.

Bestetik AEKko arduradunek jakinarazitakoaren arabera euskara eskolak hasita badaude ere, interesatuta dagoenak oraindik ere izena emateko aukera dauka.



Higiezen Agentzia

Pablo Gorosabel 40
1. solairua • 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel./faxa: 943 65 55 97
Sakelakoa: 669 368 994

Tolosa: Errementari kalean, 62 m2tako planta duen etxebizitza, 5. solairua, 3 logela, garajea aukeran.

Tolosa: Berazubi, berritutako etxebizitza, kanpoaldera, bista ederrak.

Tolosa: Berazubi, 90m2ko etxebizitza, egoe-
ra onean, altzariekin.

Tolosa: Larramendi, etxebizitza laugarren solairuan, igogailua, egoera ezin hobean, ga-
rajea aukeran.

Tolosa: Aldaba auzoa, 3 pisutako adosatua, lursailarekin, 297.000 euro.

Tolosa: Errementari kalea, hirugarren solai-
ra, 3 logela, berritua.

Tolosa: Nafarroa Etorbidea, bigarren solairuan etxebizitza, 90 m2 erabilgarriak
ditu.

Tolosaldea: Baseria, 10.000 m2-ko lursaila-
rekin, konpontzeko.

Tolosa: Belate auzoan, garaje itxiak daude

salgai. 18 m2atik hasi eta handiagoak, obrak
hasita daude.

Abaltzisketa: Etxebizitza polita altzariekin.
Ikuspegi ezin hobekoa. Bi ibilgailuentzako ga-
rajea.

Albiztur: Konpondutako baserri polita,
13.000 m2-ko lursailarekin.

Alegia: Eraiki berriak, 13 etxebizitza, 1 eta 2
logeletakoak, trastelekuarekin, 174.000 eu-
rotatik gora.

Altzo: 75 m2-ko planta duen bi pisutako
borda, 10.000 m2-ko lursaila.

Altzo: Etxea, konpontzeko, 3 etxebizitza
egiteko lizentziarekin, 10.000 m2-ko lursai-
la.

Anoeta: Etxebizitza harrizko baserrian,
konpontzeko, 90 m2.

Irura: Etxebizitza, atikoa, 3 logelarekin eta
kanpoaldera begira. Oso eguzkitsua da.
237.500 euro.

Laburrak

Urteko Kirolari Onena ekitaldia, hilaren 19an

KIROLA ● 2007ko Tolosako Kirolari Onenak ekitaldia Leidor aretoan egingo dute aurten, aurreko urteetako arrakastarekin Udal Aretok Nagusia txiki geratu baitzaie. Ekitaldia hilaren 19an izango da 20:00etan, eta ondoren lunch txiki bat ere prestatuko dute. Klubeetako ordezkariak hautaketa egin ondoren, 12 kirolari daude urteko kirolaria izateko.

Adimen emozionalaren inguruko hitzaldia, bihar

HEZKUNTZA ● Adimen Emozionala. Gure seme-alaben heziketan gurasoi lagun diezagukeen tresna praktikoa eta erabilgarria hitzaldia izango da bihar, 19:00etan Laskorain ikastolako (Usabal) areto nagusian. Hizlariak Aitziber Aierdi, Joxe Martin Aizpuru, Beatriz Ezeiza eta Kepa Goikoetxea izango dira.

Eskerrak Zuri Aipamen Berezia, etzi, 20:00etan

GIZARTEA ● Galtzaundi Euskara Taldeak eskualdean hainbat lagunek urte osoan zehar egindako lanaren aipamen berezia egin nahi du, eta horretarako urtero bezala, Eskerrak Zuri Aipamen Berezia 2007 ekitaldia antolatu du etzirako, Tolosako udaletxeko pleno aretoan 20:00etan. Kirola, kultura, gizatasuna eta ohorezko aipamena izango dira nabarmenduko dituzten arloak, beraz, 4 oroigarri banatuko dira. Sariketa baino errekonoizimendu bat da bereak dioten bezala ekitaldi hau.

Tren berezia Santa Lutziko feriara joateko

GARRIAOK ● Bihar Zumarragan Santa Lutziko feria ospatzen dutenez, Renfek tren zerbitzua indartuko du eskaera handiko orduetan, hau da, 09:00etatik 11:00etara Zerbitzu eskaera handiena Villabonatik Zumarragara artekoa denez, Renfek aurreikusitako bi herrien arteko ibilbidea ohioz kanpoko zerbitzu batzuekin egitea, zehazki 6 tren berezi jarrita bidaiarien eskura, 09:00etatik 11:00etara.

Musika Eskolako kontzertua, Amarotzen

MUSIKA ● Larunbat honetan, 19:00etan, Amaroako auzo elkarlearen lokaletan Eduardo Moco-roa Musika Eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute. Miguel Angel Morenoren eta Koldo Arragonaren zuzendaritzapean Eduardo Moco-roa, Feliciano Beobide, John Williams eta Jacques Offenbach- en obrak joko dituzte, besteak beste. Auzokideek Musika Eskolako ikasleek eskertu nahi dituzte, bigarren ez eskainiko dutelako kontzertua Amarotzen.



Herenegun egin zuten jardunaldien aurkezpena Jatorkin elkarteak. I. TERRADILLOS

Jatorkinek 'Euskal Herriko herritar berriak' lelopean jardunaldiak antolatu ditu

Gizartea » Gaur hasiko dira etorkinen aldeko elkarlearen ekitaldiak, eta larunbatera arte luzatuko dira.

INIGO TERRADILLOS

Jatorkin etorkinen aldeko elkarleak ekitaldi ezberdineko egitaraua antolatu du *Euskal Herriko herritar berriak* lelopean. Gaur hasiko dira jardunaldiak eta larunbatera arte argazki erakusketa, hitzaldiak, ikus-entzunezkoak eta afaria izango dira.

Gaurkotatutako gaiak

Bi hitzaldi antolatu dituzte, eta bertan gaurkotatutako bi gai jarraituko dituzte hainbat adituk. Lehena bihar izango da, magrebeko emakume etorkinei buruz; kasu honetan, ohitura tradizionalak defendatzen dituzten eta ez dituzten iritziaz jasotzeko aukera izango da, eta emakume musulmanek buruko zapia erabiltzearen arazoak ariko dira, besteak beste. Bigarren hitzaldia, etzi izango da; hemen, etorkin gaztearen irudia komunikabideetan aztertuko dute, beraz, hau ere gaurkotatutako gaia, Tolosan dagoen etorkin adingabeen zentroak zeresana eman baitu.

Afaria, musika, argazkiak...

Bi hitzaldiez gain, beste hainbat ekitaldi ere izango dira. Gaur argazki erakusketa izango da Magrebeko emakume musulmanari buruz Tolosako Ekinbide Etxeko

egoitzan. Bertan, tea eta pastak dastatu ahaliko dira, eta Faluyako emakumei buruzko ikus-entzunezko bat ere emango dute.

Eta larunbata, berriz, festarako eguna izango da. San Estebango auzo elkarlearen afari marokoarra prestatuko dute, eta afariaren ostean, Bouhia bereber taldearen musika eta sabel dantza izango dira. Afarian izena eman nahi duenak 660 41 05 48 edo 645 57 88 64 telefono zenbakietara hotsegin beharko du, eta 10 euro ordaindu.

Immigrazioa Euskal Herrian

Duela urte gutxi arte gure herriak emigratzen zutenak nagusitzen baziren ere, epe laburrean, Euskal Herria herrialde urrunetako etorkinen harrera-leku bilakatu da. Halaber, etorkinen artean Magrebetik datozenak nabarmentzen dira, bai kopuruagatik baita kultura, hizkuntza, erlijio eta gizarte ezaugarri desberdinegatik ere. Dibertsitateari eta integrazioari

buruzko hausnarketa eta eztabaida ugari ematen ari da giza talde honen inguruan, gizartearen hedatu diren estereotipoen eta aurreiritzien, eta nazioarteko zein barneko zenbait gertakarien eraginez magrebtarren, bere erlijioaren eta usadioen aurka sorrarazitako arbuio gero eta hedatuagoa baitago gure artean.

Errealitatearen isla?

Egin berri den ikerketa batek dio etorkinek gehiago ematen dutela jasotzen dutena baino. Dena den, Jatorkin elkarteak kideek salatzen dute horrelako berri positiboak normalean ez dituztela komunikabideek zabaltzen, eta bai, ordea, berri negatiboak; horrek, beraien ustez, beraieganako arbuio edo gaitzespen hori sortu eta areagotzen du. «Egia da, agian, marokoarrei gehiago kostatzen zaiela bertakoekin erlazioz, baina ezin esan komunikabideek gehiegi laguntzen dutenik», azaltzen dute.

KULTURARTEKOTASUNA BULTZATZEN

Jatorkin etorkinen aldeko elkarleak, gehienbat magrebiarrez osatua, eta baita bertakoez ere. Duela bi urte sortu zen ondorengo helburuekin: herritarrek sentsibilizatu immigrazioak eta elkartruke kulturalak dituen alderdi positiboaren inguruan; Tolosaldera iristen diren etorkinei informazioa eta babesa ematea; elkarlana eta ezagutza bultzatzea eskualdeko elkarlearen artean; kulturartekotasuna bultzatzea eta Tolosaldeko komunitate ezberdinen artean elkarbizitza bultzatzea.

Orain arte antolatu dituzten ekitaldietan etorkinak datozen lurraldeak ezagutarazi nahi izan zituzte. Kultura ekitaldiez gain, Jatorkin elkarleak immigrazioarekin zerkusia duen ekimen guztietan hartzen du parte. Halaber, Tolosaldea Garatzen egiten diren immigrazioari buruzko hilero-ko mahaiari hartzen du parte, eta lagundu, aholkatu, itzultzaile eta bitartekari lanak egiten dituzte erakunde eta adingabeen artean.

» EGITARUA

Abenduak 12, gaur

■ **19:00.** Inaugurazioa eta argazki erakusketa Magrebeko buruz (Joxepi) eta Emakume musulmanari buruz (Laura Rodriguez). Te eta pasta dastatzea.
■ **20:00.** Dokumental proiektzioa (Faluyako emakumeak - Irak)

Abenduak 13, bihar

■ **19:30.** Hitzaldia: *Magrebeko emakume etorkina: generoa eta kultur aniztasuna*. Hizlariak: Laura Rodriguez (Babeleko dorrea), Hajar Samadi (Arabiera musulmanaren ikaslea) eta Maya Amrane (Aljeriari etorria Euskal Herria). Tolosako Ekinbide Etxearen egoitzan, jubilatuen tabernaren gainean, Sortzez Garbia plazan.

Abenduak 14, etzi

■ **19:30.** Hitzaldia: *Etorkin gaztearen irudia komunikabideetan*. Hizlariak: Pello Aierbe (Mugak-en zentroa) eta Lola Fernandez Valenzuelo (Kazetaria, Granadako Euroarabe fundazioko kidea). Tolosako Ekinbide Etxearen egoitzan, jubilatuen tabernaren gainean, Sortzez Garbia plazan.

Abenduak 15, larunbata

■ **21:00.** Afari marokoarra San Estebango auzo elkarlearen (Ferialde-kuan). Ondoren, kontzertua Bouhia bereber taldearekin, eta sabel dantza.

Halaber, honetan, Tolosan etorkin adingabeen zentroa irekitzeko ere ondorio zuzena izan duela berriaren gehitzen dute. «Jendea prentsan irakurtzen duenarekin geratzen da, eta guztiok zaku berean sartzen gaituzte».

Adingabeko zentroaren gainean, bertako egoera ez dela batere ona diote; «adingabeekin hitz egitean ez dutela tratatu ona jasotzen diote, gainera ez daude nahikoa hezitzaile hainbeste gazterentzat; ez dago gizarte-politikan hobe-kuntzarik, eta porrot egiten badu, gizartea izango da galtzailea».

Elkarlearen egoitza

Jatorkin elkarteak Larraemendin du egoitza. Hau astearteetan 09:00etatik 10:00etara eta larunbatetan 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara izaten dute zabalik. Bertan eskaintzen dituzten zerbitzuen artean, etorri berri diren etorkinei informazioa, laguntza eta babesa ematearena izaten da.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Zumardi Txikiaren parean (Santa Klaran). 2 logela, sukalde handia, kanbara. Berogailuak. Hormigoizkoa. Uzturre aldera ikuspegiak. 665 70 86 35.

Aurtengo Kirol Asteburua, bihar hasi eta igandera arte

Zizurkil » Herriko kirolariei omenaldia eta Aimar Irigoien harri-jasotzaileak egingo duen errekor saiakera, ekitaldien artean

ERREDAKZIOA

Kirol Asteburuaren berri eman zuten atzo prentsaurean Marian Lazkano alkateak, Gurutze Resa Kirol zinegotziak, Joseba Otaegi aizkolari zizurkildarrak eta Aimar Irigoien harri-jasotzaileak. Hain zuzen, azken honek egingo duen errekor saiakera izango da ekitaldirik aipagarrienetakoa. Bihar hasi eta igandera arte izango dira ekitaldiak.

Urteroko ohiturari jarraituz, herriko kirolariei omenaldia egingo zaie. Baina hori etzi izango da. Aurretik, bihar, Patxi Uso biagiak Atxulondo kultur etxean, 19:30ean. ■ **Abenduak 13, bihar.** Patxi Uso biagi Atxulondo kultur etxean, 19:30ean. ■ **Abenduak 14, etzi.** Alpi-Mambo-Torre Sin Nombre ikus-entzunezkoa izango da. Aurretik, 19:30ean, Atxulondo kultur etxean. Ondoren, Zizurkilgo kirolariei omenaldia. ■ **Abenduak 15, larunbata.** Hamabai erakargarria



Resa, Otaegi, Irigoien eta Lazkano, Kirol Asteburuaren kartelarekin. HITZA

» EGITARAUA

■ **Abenduak 13, bihar.** Patxi Uso biagi Atxulondo kultur etxean, 19:30ean.

■ **Abenduak 14, etzi.** Alpi-Mambo-Torre Sin Nombre ikus-entzunezkoa izango da. Aurretik, 19:30ean, Atxulondo kultur etxean. Ondoren, Zizurkilgo kirolariei omenaldia.

■ **Abenduak 15, larunbata.** Hamabai erakargarria

Igandean herri kirolen jaialdi era-

gargarri ikusteko aukera izango da. Aimar Irigoienek 152 kilotako harriarekin 3 minututan Goenatxoren errekorra hausteko saioa egingo du. 16 jasoalditan dagoen marka. «Animatuta» dagoela esan du Irigoienek eta markaren bila joango dela azaldu du. Jaialdian Goe-

bi Orduz Kirolean Zizurkil. 16:00etatik 18:00etara, *Patinekin ondo pasa* ekimena. 18:00etan, merienda eta opari banaketa. 22:30ean, Zizurkilgo XI. Gau Kro-

sa. ■ **Abenduak 16, igandea.** Herri kirolen jaialdia, 12:00etan hasita, In-txaur frontoian.

natxo, Izeta II.a, Urtzi Telleria, Miren Urkiola, Mari Jose Sardon harri-jasotzaileak ere ariko dira.

Larretxea, Arrospide, Olasagasti eta herriko Joseba Otaegik ere erakustaldia emango dute. Oategik azaldu duenez, «gogotsu nago iganderako». Hilaren 23an apustu du Rekondoren aurka eta ordurako prestatzeko balioko dio.



Etiopiako biztanle bat. IÑAKI CAPEROCHIPÍ

Etiopiarra bidaia egiteko aukera Mendi Astearen baitan

Asteasu » 'Ethiopia: un país multiples miradas' ikus-entzunezkoa emango du gaur Iñaki Caperochipik udaletxeko zine aretoan

I. GARCIA

Asteasuko Mendi Astearen baitan gaur Iñaki Caperochipik *Ethiopia: un país multiples miradas* ikus-entzunezkoa emango du gaur 20:00etan, udaletxeko zine aretoan. Ordu erdi inguruko emanaldia izango da, musikak garrantzi handi izango duelarik. Aurretik Caperochipik Etiopiarra egindako bidaia-aurkezpena egingo du. Emanaldia eta gero, solasaldia egiteko aukera izango da ikusleekin.

Behetik gora zeharkatu zuen Caperochipik Etiopia bere bidaia. «Addis Abebatik, hiriburu-tik, hasi genuen bidaia», azaltzen du Caperochipik. «4x4 autoa hartu genuen eta herrialdea zeharkatu genuen. Lehenengo hegoaldera

joan ginen, gero, berriz, iparraldera eta ekialdean amaitu genuen bidaia».

Kolore biziak

«Tribu ugari topatu daitezke bertan, beraien artean ezberdinak direnak», azpimarratzen du Caperochipik. «Asko gustatzen zaie kolore biziz margotzea eta arropak ere oso biziak ditu. Paisaiak ere mota askotakoak dira Etiopiarra».

Hegoaldean parke naturalak, lakuak, animalia basatiak aurkitu zituzten. Hegoaldeko zenbait herri garrantzitsuetan etnia ugari elkartzen dira merkatuetan. Iparraldean Niloren haitzarteak, Tama-lakua, 4.400 metro garaia dauden basamortuzko paisaiak, harkaitzetan eginda dauden elizak... Bidaia ekialdera joateko asmorik ez zeukaten, baina denbora zuten Harar hirira joan ziren, Etiopian musulmanen bakarra. «Esan ziguten ez zuela merezi joatea, baina ezusteko ederra izan zen. Goitik beherako aldaketa izan zen».



«Espainiako konstituzioari ez»

ADUNA » Adunako ezker abertzaleak Espainiako konstituzioari ezezkoa eman dio eta ezezko hori luzatu dio ere lan egutegian «inposatutako jai egunari». «Beraz, lanean tinko mantendu gara herrian naiz eta gure lan-tegietan ez diguten lanean aritzeko aukerarik eman». Independentzia aldarrikatzen dute: «Espainiaren eta Frantziaren zapalkuntza eta ukaziotik ez dago etorki-zunik Euskal herriarentzako eta independentzia lor-

tzeko bidean gogor borrokatuko dugu herri honen askatasuna lortu arte». Abenduaren 6an herrian lanean aritu zirela azaldu dute: «Ezker abertzalearen aurrera begirako ildoak hainbat herritarrei aurkezten, ezker abertzaleak gatazka konpontzearen ahaleginean aurkeztutako marko demokratikorako proposamena azaltzen, Aduna euskal herriko herri bat dela aldarrikatzen seinalak ipiniz...». HITZA

Laburrak

Emeterio Sorazuren hitzaldia bihar

VILLABONA » Emeterio Sorazuk, hainbat urtetan Ibarrako parrokoa izan denak, hitzaldia emango du bihar. *Neguko solstizioko ohiturak gure artean* izango da hitzaldiaren izenburua. Udaletxearen Balio Anitzeko gelan emango du solasaldia, 20:00etan. Sorazu aditua da antropologian eta euskal ohituratan.

Gabonetan Jolasean ekimena abian

ZIZURKIL » Gabonetan Jolasean ekimena jarri du abian Udakal hilaren 26, 27 eta 28 eta urtarilaren 2, 3 eta 4rako. 1995-2003 urte bitartean jaiotako haurrei zuzendutakoa da. Izena emateko etzi da azkeneko eguna. Udakal bulegoetan edo 943 69 24 95 zenbakian egin behar da eta 10 euro ordaindu behar dira.

'Bularretik mintzora' irakurzaletasuna euskaraz bultzatzeko proiektu berria

Hezkuntza » Tolosako ikastetxeetan jarriko dute martxan proiektu pilotoa, eta liburu-disko erakargarri bat prestatu dute.

NEREA URBIZU

Bularretik mintzora liburu-diskoa aurkeztu zuten atzo Jokin Bildarratz Tolosako alkateak eta Itziar Zubizarreta ipuin kontalaria eta irakasleak. Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura elkarteak irakurzaletasuna sustatzeko kanpainaren aurkezpenean egin zuen, «esperientzi pilotu bat aurkeztu nahi izan dugu, haur txikien gurasoei eta hezitzaileei zuzenduta, eta momentuz Tolosan bakarrik martxan jarriko duguna». Galtzagorri elkarteak Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren arteko lankidetzaren fruitu izan da.

O eta 6 urte bitartekoekin lantzeko da eta irakurzaletasuna landu nahi du, baina modu erakargarrian egin dute, musika eta euskal esaera bitxi, nahiz sehaska kantak besteak beste, batu baitituzte ere, CDan. «O eta 6 urte bitarteko adin magiko horretan sentimenduak, zentzumena eta lehenengo hariak osatzen hasten dira: aukeraturako adina ez da kasualitatea, izaera edo pertsonalitatea finkatzen baita».

Haurren beharrei erantzuna

Haurrei jaiotzen direnetik gauza asko behar dituzte modu egokian garatzeko, baina hauek asetzeko haurrek oraindik ez dituzte gara-tuak trebetasun kognitiboak, ezta hizkuntza bera ere. Behar hauei aurre egiteko «helduek altxor baliotsu bat daukate: irakurketa». Horregatik, «haur horri irakurketa eman behar zaio, jaten ematen zaion bezala», testuek komunikatzeko balio dute.

Haurrei irakurtzen ematen zaionean garapenean laguntzen du, «haurren maila laguntziko eta afektibo berean komunikatzen ari garelako». *Bularretik mintzora* esperientzia pilotoa honetan laguntzen du.

Hizkuntzari erreparatu gero,



Izaskun Jauregik eta Itziar Zubizarretak irakurzaletasuna sustatzeko kanpaina jarri dute martxan. N. URBIZU

ingurua erakusteko irakasten bada, erabat formala izango da, eta behar afektiboak beste nolabait adierazi beharko ditu haurrak adinean aurrera: gaztelaniaz edo ingelesez. «Izan ere, euskarak galera handia izan du azken urteetan».

Osasunean ere eragina du

Egitasmoa berria da Euskal Herrian, «ez da guk sortua, munduko herri askotan eraman da aurrera. Gu saiatu gara horren egokitzapen bat asmatzen Euskal Herrirako». Herrialde Katalanekin eta Kolonbiarekin dute harremana Galtzagorri elkartearen bidez, laguntza eta babesa jasoz. «Pausoz-pauso saiaturako gara aurrera ateratzen egitasmo hau».

Literatura eta irakurketa oso garrantzitsua da txikientzat ere, eta osasunean berebiziko garrantzia du ere.

Mailegua haur liburutegian

Bularretik Mintzora liburu-diskoa kanpainaren ekimen nagusienetakoa da. Itziar Zubizarretak zuzen-

du, Elena Odriozolak ilustratu eta Aurelio Edler-ek musikatu du. Musika ez du hizkuntza estaltzen, eta batez ere, Gipuzkoako eta Bizkaiko ahozko tradizioan jasotako kantak, jolasak, sehaska kantak, ipuinak eta poemak daude. Aldi berean, kantu eta jolas hauek nola landu behar diren ere azaltzen da: hala, harremana asko lantzen da.

Liburu-diskoa ez da salgai egongo oraindik, baina Errota haur liburutegian liburu-kutxen mailegua eskuratu ahal izango da, eta guztira 30 ale utziko dituzte bertan. Bertan, Galtzagorri elkarteak gomendatzen dituen liburuak daude hartzeko. Informazio gehiago behar izanez gero, webgune bat ere badute: www.galtzagorri.org, hain zuzen.

Bi urteko lana dago egitasmo honen atzean, Zubizarretak adierazi bezala. «Urteak beharko dira ikusteko proiektu honen fruituak zein diren, baina orain arteko inpresioa ona izan da». Euskara eta irakurzaletasuna eskutik helduta doaz proiektu honetan.

» EGITARAUA

■ **Hilaren 18**, 18:30ean Juan Kruz Igerabide poetarekin *Bularretik mintzora: poesia hizkuntza afektiboren oinarrian*. Haur liburutegian.

■ **Hilaren 19**, 18:30ean Juan Karlos Alonso psikologoa; *Haur literatura-aren eragina haurren garapenean*. Haur liburutegian.

■ **Gurasoentzat**. Ikastaroa, Pello Añorga ipuin kontalaria eta idazlearekin.

■ **Irakasleentzat**. Ikastaroa Itziar Zubizarreta ipuin kontalaria eta irakaslearekin.



Diskoaren azala. HITZA

Gaztetxearen urteurrenaren harira, gaur zinema eta bihar diapositibak

Alegia » Hilabete osoan zehar daude ekitaldiak, eta ikus-entzunezkoak izango dira aurtengo ardatza.

ERREDAKZIOA

Gaur, Alegiko Gaztetxearen XX. urteurrena gogoratzeko 20:00etan zinekluba izango da Gaztetxean. Kasu honetan, *Las vacaciones de Mullot* filma ikusi ahal izango da.

Ondoren, barrikotea antolatuta dute bertan, eta 22:00etan, berri, *Fahrenheit 451* filma jarriko dute.

Bihar, berri, diapositiba emanaldia dago Gaztetxean. Kasu honetan, Trango Eternal-Flame dago ikusgai. 19:00etan hasiko da, eta 21:00etan, aldiz, barrikotea, eta honela amaituko dute gaua.

Etzi datorren ekitaldia

AHTren aurkako manifestazioa etzi egingo dute Tolosaldeko gaztetxeek eta gazte asanbladak deituta. Asteartean 20:00etan barrikotea izango da, eta 21:00etan, bi-deo emanaldia eta hitzaldia.

Laburrak

Gabonetako entsegua larunbatean izango da

BALIARRAIN » Larunbatean Balarraingoek 21:00etan Gabonetako entsegu bakarra egingo dute 24ean kantatzekoak gogoratzeko. Kultur gelan elkartuko dira eta bertan azal daitezela interesatuak, gogoratu dute udaletxetik.

Autobusa, AHTren aurkako manifestaziorako

AMEZKETA » Amezetako Gazte Taldeak Arrasaten larunbatean *Inposizioak ez! AHT gelditu!* manifestazio nazionalera joateko autobusa antolatuta du eta bertara joateko izena tabernetako zerrendetan eman behar da.

txokoa

2 sarrera pare

deitu eta eskuratu

Ken 7

abenduak 14 ostirala
22:00etan
Tolosako Leidorren



2 sarrera pare

deitu eta eskuratu

Black Heritage Singers

abenduak 15
larunbata
21:00etan Tolosako Leidorren



Laburrak

Ipuin kontalaria gaur, 17:30ean, Kultur Etxean

IBARRA ■ Benito Izagirre kultur etxean ipuin kontaketa saioa egongo da gaur 17:30etik aurrera. 4 eta 8 urte bitarteko haurrei zuzendutako ekitaldia, Ibarako Udal Liburutegiak antolatu du. Lur Kortak Pirata zaharren ipuinak kontatu ditu.

Abenduaren 15eko afarirako txartelak

IBARRA ■ Herriko binakako pilota txapelketa dela eta, afaria antolatu dute Xepia elkartearen abenduaren 15ean. Txartelak Atari tabernan salgai aurkitzen dira eta erosteko aukera bihar amaituko dela jakinarazi dute antolatzaileek.

Gazte Taldearen 10. urteurrenako ospakizunak

AMEZKETA ■ Amezetako Gazte Taldearen 10. urteurrena dela eta, etzi, *Urrutiko Intxaurrak 10!* eguna antolatu dute. Alegian egingo duten AHTren aurkako manifestazioaren ondoren, 20:30ean bertso afaria izango dute Zazpi-Ilturrin. 00:00etan Unsain anaiekin erromeria eta ondoren karaokea.

Telefonoak Larrialdia. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leizta. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leiztaran autob. 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leizta): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320



Tolosaldeko Gaztetxe eta Gazte Asanbladetakok kideak prentsaurrekoa eskaini zuten Ibarako Gaztetxean, AHTren aurka. ASIER IMAZ

AHTren aurkako manifestazioak Alegian eta Arrasaten asteburuan

AHT » Tolosaldeko Gaztetxeetako eta Gazte Asanbladetakok kideak proiektuaren aurka agertu dira.

ASIER IMAZ

Tolosaldeko Gaztetxe eta Gazte Asanbladetakok kideak prentsaurrekoa eskaini zuten atzo Ibarako Gaztetxean, «gazteok AHT geldituzteragoaz» lelopean.

Bi deialdi egin zituzten bertan; lehenik «dei egiten diogu eskual-

deko gazteriarri, etzi 19:00etan Alegiako plazan egingo den manifestazioan parte hartzeko. Ondoren Anestesiaren kontzertua egongo da Gaztetxean». Bigarren deia abenduaren 15erako luzatu zuten, «Arrasaten (Gipuzkoa) 17:00etan herriko plazatik irtego den manifestazio nazionallean, ezinbestekoa izango da gazteon parte hartzea».

«Metropoli kapitalistak»

Gazteek gogor salatu zuten euren «etorkizuna baldintza dezakeen makroproiektua» eta «jauntxo eta

agintariak sortu nahi duten metropoli kapitalista».

Herri txikien inguruan kezkatu-rik agertu ziren, izan ere, «tren honek hiriburuak lotuko lituzke, txikiak isolatuagoak geldituz. Ondorioz, herri horietako biztanleak megahirietara joan behar lukete bizitzera, han izango baitira beharrezko zerbitzu eta lanpostuak».

«Ama lurrari kaltea»

Amalurrak eskualdean jasango lukkeen «kaltea eta beraren defentsan, gazteriarri kalera ateratzeko deia egiten diogu».

Zeharkako ondorioak ere aipatu dituzte; «Euskal Herria beraieen negozio gunea bilakatuko litzateke, izan ere, hasi dira zentral termikoen proiektuak, AHT mugiarazteko beharrezkoa den izugarritzko elektrizitate energia lortzeko; harrobi gehiagoren sorrera, AHTren ibilbidea eraikitzeko beharrezkoa den hormigoia lortzeko; kostaldearen eraldaketa, arrantza desagertaraziz eta jauntxoak aberasteko turismo gune bilakatuz...». Ondorioz, «AHTren aferan zer esana badugula agintariei entzunaraziko diegu».

Regina Otaolak plazari izena aldatu dio

Lizartza » Herriko plazari izena aldatu ostean, erretako Espainiako banderaren lekuan berria ipintzen saiatu zen.

A. IMAZ

Lizartzako udaletxean 08:40ean hasi zen osoko bilkura atzo espainiar berri agentziek jakinarazi zuten. Bertan, PPren zazpi zinegotzietatik sei aurkitzen ziren, Regina Otaola buru zutela. Urgentziazko puntu batean, «Txirrita gudariaren plaza zenari izena aldatu eta Askatasunaren plaza deitza erabaki zuten».

Regina Otaolak ohar batean jakinarazi zuenez, izen aldaketarekin bizilagunei «askatasuna herriar guztiei egokitzun zaien eskubidea dela» gogoraratu nahi izan zuten. 27 boturekin alkate dagoen eibartarrak, ETA eta ANV-EAeri «izupean ez obeditzea» eskatu zien lizartzarrei.

Joxe Bernardo Bidaola

Txirrita lizartzarra 1976. urtean hil zuten Guardia Zibilak 23 urte zituela. Espainiar albiste iturrien arabera, Joxe Bernardo Bidaola ETAKi deia muga igarotzen ari zen, Etxalar inguruan espainiar poliziarekin tiroketa batean hilik suertatu zenean. Hainbat euskal komunikabidek eta lizartzarrek, ordea, *Txirrita*-rekin muga igarotzen ari ziren bi kide eta bere familiaren esanak gogoratu dituzte gertaera azaltzeko garaian. «Berarekin zihozen bi kideek, bere atxilotetaren lekuko izan ziren, ondoren tiro batzuk entzun zituztelarik. Lau egun beranduago aurkitu zuten Joxe Bernardo Bidaolaren gorpua familiakoek, lehen ere ikuskatua zeukaten gune batean».

Erretako Espainiako bandera

Herriko jaien hasieran jarri zuten PPko kideek Espainiako bandera udaletxearen balkoian, Lizartzako bandera eta ikurrinarekin batera. Espainiako konstituzio egunean



Udaletxea banderarik gabe eta Askatasunaren plaza hutsik. ASIER IMAZ

ordea, erdian zegoen Espainiako bandera erre egin zuten ezezagun batzuk. Osoko bilkuraren ondoren, atzo Regina Otaola udaletxe-ko balkoira irten zen. Behekaldean, atzo goizera arte Txirrita plaza zen lekuan, «ertzainak eta 20 bat kazetari» aurkitzen ziren.

Regina Otaolak erretako bande-

raren lekuan, Espainiako bandera berri bat ipini nahi izan zuen, baina hau zintzilikatzeko beharrezkoak ziren sokak, suak kaltetuak zeuzkan. Ezinaren aurrean, Otaolak ikurrina eta Lizartzako bandera kendu zituen, berriro denak batera jartzeko asmoa azaldu zuen aldi berean.



Neguairen lehenengo zantzuak

LEITZA ■ Negua iristear dago eta honen lehenengo zantzuak atzo Leitza inguruko mendietan ikusi ahal izan ziren, Aizan mendia eta Kornietia bera ere kaskoa elurtuta zutela esnatu baitziren atzo. Tardo baserria Leitza eta Beruete artean muga egiten duen Kornietia mendiairean parean dago

eta Aizan mendiairean azpian, eta bertako Juan Bautista Agirrek herenegin elur pixka bat egin zuela azaldu du, elur-bustia. «Inguru hau oso menditsua da eta hodeiak hemen gelditzen dira. Elur leku handia da, eta atzo goizean ere zerbait bazen etxe atarian». N. GARZIA

Aurrerako bazkideentzat loteria gaurtik aurrera salgai, egoitzan bertan

Loteria ■ Hiru egunez salduko dute loteria 19:30etik 21:00etara, ostirala azkeneko eguna izanen delarik.

N. GARZIA

Gaurtik hasi eta ostirala bitarte Aurrerako bazkideentzat loteria salduko dute Aurrerako egoitzan bertan, 19:30etik 21:00etara. Beraz, gaur hasi eta ostiralean amaituko da loteria erosi ahal izateko epea.

Bakoitzak 20 euro

Aurrerako arduradunek aurreko astean azaldu zuten bezala, bazkide bakoitzak hasiera batean behintzat 20 euro jarri ahal izanen ditu eta dezimok gelditzen badira, ostiralean bazkide bakoitzak nahi adina dezimo erosteko aukera izanen du.

Asteburuan jokaturako 3 finalak irabazi dituzte Aurrerako pilotariek

Pilota ■ Anartz Olanok eta Mikel Sagastibeltzak Lizarrakoa irabazi zuten eta Jaunarenak, Baque Kafeak txapelketakoa.

NAIARA GARZIA

Aurrera Pilota Eskolako mutilak hagitx fin ibili dira asteburu honean, jokatu dituzten lau txapelketetan. Aurrerako arduradunek azaldu dutenez, «3 final jokatu dituzte asteburuan eta hirurak irabazi dituzte».

Pilotariek ondorengo txapelketetan hartu dute parte: Diario Vasco Txapelketan (Urretxun), Lizarrako Txapelketan (Lizarran), Baque Kafeak Txapelketan (Iurretan) eta Nafar Jokoa. Azken



Mikel Sagastibeltza Lasarte eta Anartz Olano, Patxi Ruizekin, Lizarran. HITZA

hauek Nafarroako herri batetan baino gehiagotan jokatu dituzte, baita Leitza ere.

Finaletan txapeldun

Lizarrako Txapelketari dagokionez, ostegunean eta igandean finalak jokatu zituzten. Ostegunean, Mikel Sagastibeltza Lasarte Iribariaren aurka aritu zen, eta 18-9 irabazi zion. Anartz Olanok ere igandean jokaturako partida (Zamoraren aurka) irabazi egin zuen, 18-15. Lizarrako finalean txapeldun suertatu dira, beraz, bi pilotariak. Igandean Aimar Lansalotek hirugarren finala jokatu behar zuen arren, atzeratu egin zuten eta gaur jokaturako dute.

Baque Kafeak Txapelketako finala larunbatean izan zen, eta Jaunaren leitzarrak Zabaletaren aur-

ka jokatu zuen, kadeteen kategorian. Txapela leitzarrak eskuratu zuen, 18-10 irabazi ondoren.

Diario Vasco Txapelketari dagokionez, Aurrera Pilota Eskolak ere ez zuen hutsik egin eta Urretxun joan den ostegunean finalaurrekoak jokatu zituzten Jaunarenak eta Bolinagak, Urrutikoetxea eta Landabururen aurka, 22-6 irabaziz.

Nafar Jokoa

Nafar Jokoen barruan joan den asteburuan 5 partida jokatu zituzten pilotariek. Amazabal Pilotalekuan 2 jokatu zituzten: Anartz Olanok eta Mikel Hernandorenak irabazi egin zuten (18-9). Lansalotek eta Goikoetxeak, aldiz, galdu egin zuten. Ibai Gilek eta Jon Iparragirrek ere galdu egin zuten Uharte-Iruñian jokaturako norgehiagoka.

Mikel Sagastibeltza Lasarte eta Iñaki Saralegik erraz irabazi zuten (2-18) Burlatan jokaturako partida, baita Xabier Jaunarenak eta Joxerra Aldaregiak ere Iruñean jokaturakoa, 7-18 irabazi baitzuten.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri
eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Ikuskizunak

■ **Asteasu.** Iñaki Kaperotxipik Etio-
pian zehar egindako bidaia ikus-
entzunezko baten bidez aurkeztu-
ko du udaletxeko zinema aretoan
20:00etan, XIII. Mendi Astearen
barruan.

Erakusketak

■ **Tolosa.** Kulturarteko jardun-
dien inaugurazioa eta argazki era-
kusketa Magrebi buruz (Joxepi)
eta Emakume musulmanari buruz
(Laura Rodríguez) Zentro sozio-
kulturalen (CIT); te eta pasta
dastatzea; 20:00etan dokumental
proiektzioa (Faluyako emakume-
ak-Irak). Jatorkin elkarteak antola-
tuta.

Hitzaldiak

■ **Villabona.** Emeterio Sorazuk Ne-
guko solstizioako ohiturak gurean
hitzaldia emango du udaletxeko
balioanitzeko gelan 20:00etatik
aurrera.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Igandean Gipuzkoako
Bertsolari Txapelketara, Donostia-
ko Ilunbe zezen-plazara joateko
autobusa antolatu du Galtzaundi
euskara taldeak 6 eurotan (bazki-
deek 5 euro). Tolosan 15:30ean
eta Villabonan 15:40ean. Izen-
ematea, Galtzaundiren egoitzan
bertan.

Irteerak

■ **Asteasu.** XIII. Mendi Astearen
barruan, Zarautz-Zumaia mendi
irteera antolatu dute, 08:30ean
plazatik abiatu eta 12:30erako
itzuliz. Hurrek euro bat eta hel-
duek 3 euro ordaindu beharko
dute autobusa.


■ **Tolosa.** Deba-Zarautz irteera
antolatu du Alpino Uzturre mendi
elkartek iganderako. Ondoren
babarrun jatea izango da. Izen-
ematea, elkartearen bertan (Gudari
6. 943 65 27 89).

■ **Zizurkil.** Txuri Urdinera irteera
urtarrilaren 12an Lehen Hezkun-
tzako 5. eta 6. mailakoentzat.
Abenduaren 27a baino lehenago
izena eman behar da Zizurkilgo
udal bulegoetan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren,
52. 112.
■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea,
10. 943 67 60 13.

HITZAK ez du bere gain hartzen
egunkariaren adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik.



Aizkorrra igoko dira Aizkardikoak

VILLABONA ● Igande honetan, hilaren 16an, Zegama-Aizkorri-Urbi- Oñati
ibilbidea antolatu dute Aizkardi mendi elkarteak. Zegamatik abiatuko
dira mendizaleak (530 metro), Santi Spiritu aldera (969 m). Bertatik
Aizkorri mendia igoko dute (1.528 m). Behin gailurrera helduta Urbiatik
jaitsiko dira (1.134 m) Oñatiraino helduko direlarik. Hain zuzen, bertan

amaituko dute ibilbidea. Irteeraren iraupena sei ordukoa izango dela au-
rreikusi dute, 20 kilometro inguru egingo dituztelarik. Interesatuak 943
694458 telefono zenbakira dei dezaketa (Joxanengatik galdetu) edo
Aizkardi elkartearen bertan. Bihar izango da izena emateko azken eguna.
Egunean bertan 07:30ean abiatuko dira Olaederra kiroldegitik. HITZA

A Agurrak



Zorionak!

Tira koonntuz! Zorionak
tzuri tzuri, irurar berriari!
Zakatamalakatapa!

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko
leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak